




ISEI - IVEI

**Rs11. UNIBERTSITATEKO ETA UNIBERTSITATEZ
KANPOKO GOI MAILAKO HEZKUNTZAKO
TITULUDUNAK**





ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA



Edizioa: 2013ko abendua

© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

LAN TALDEA

Araceli de Francisco

M^a Paz Martínez

KOORDINATZAILEA

Paz Martínez

AHOLKULARITZA TEKNIKOA

Eduardo Ubieta



Sarrera	4
Rs11.1 taula eta grafikoa: Goi mailako hezkuntzako titulua (unibertsitatekoa, HNSN 5A eta 6; unibertsitatez kanpoko, HNSN 5B) duen 30-34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak.	6
Rs11.2 taula: Goi mailako hezkuntzako titulua (unibertsitatekoa, HNSN 5A eta 6; unibertsitatez kanpoko, HNSN 5B) duen 30-34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. Autonomia erkidegoetako datuak.	7
Rs11.3 taula eta grafikoa: Goi mailako hezkuntzako titulua (unibertsitatekoa, HNSN 5A eta 6; unibertsitatez kanpoko, HNSN 5B) duen 30-34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. Autonomia erkidegoetako datuak. 2011. urtea.	8
Rs11.4 taula: Goi mailako hezkuntzako titulua (unibertsitatekoa, HNSN 5A eta 6; unibertsitatez kanpoko, HNSN 5B) duen 30-34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko herrialdeetan.	9
Rs11.5 taula: Goi mailako hezkuntzako titulua (unibertsitatekoa, HNSN 5A eta 6; unibertsitatez kanpoko, HNSN 5B) duen 30-34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa Europar Batasuneko herrialdeetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2011. urtea.	11



HIRUGARREN MAILAKO HEZKUNTZAKO IKASKETAK (HNSN¹ 5A, 5B ETA 6) BUKATU DITUEN 30-34 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN EHUNEKOA.

Europar Batasunaren helburua 2020. urterako: 30-34 urte bitarteko biztanleen % 40k gutxienez hirugarren mailako hezkuntzako ikasketak (HNSN 5A, 5B eta 6) bukatu beharko lituzkete.

Ezagutzan oinarritutako ekonomia modernoaren eskakizunei erantzun ahal izateko, ezinbestekoa da goi mailako hezkuntzaren errendimendua optimizatzea, bai unibertsitate mailan baita lanbide heziketakoan ere.

Europak goi mailako hezkuntzako tituludun gehiago behar ditu, berariazko ezagupenak eta askotariko trebetasunak (komunikazioa, malgutasuna, sormena, enpresa-izpiritua) dituztenak. Horretarako, goi mailako hezkuntzako erakundeek lan egin behar dute hezkuntzak, berriztatzeak eta ikerketak elkarri eragin diezaioten.

Aurkezpenean aipatu den bezala, Europar Batasunak helburu estrategikotzat hartu du 30-34 urte bitarteko biztanleen artean goi mailako tituludunak % 40ra heltzea. Euskadin 2011n goi mailako tituludunen ehunekoa % 61,3 da, eta beraz helburua 21,3 puntuz gainditu du. Espainiako batez bestekoa (% 40,6) baino handiagoa da. Espainiak ere europar helburua gainditu du, eta Europar Batasuneko 27 herrialdeetako batez bestekoa (% 34,6) baino 26,7 puntu gorago dago. Europar Batasuneko batez bestekoa helburua baino 5,4 puntu beherago dago.

30-34 urte bitarteko goi mailako tituludunen ehunekoari dagokionez, Euskadi lehen tokian dago Europar Batasuneko herrialde guztien artean. Europar Batasuna osatzen duten 27 herrialdeetatik 13k helburua gainditua dute 2011n. Horien artean, ehunekorik handiena dutenak Irlanda (% 49,4), Luxenburgo (% 48,2) eta Suedia (% 47,5) dira. Sailkapenaren beste muturrean, ehunekorik txikienak dituztenak Italia (% 20,3), Errumania (% 20,4) eta Malta (% 21,1) dira.

17 autonomia erkidegoen artean 7k bakarrik ez dute 2011rako helburua lortu. Ehunekorik handienak dituztenak Euskadi (% 61,3), Nafarroa (% 51,7) eta Madril (% 50,3) dira. Ehunekorik apalenak dituztenak Ceuta eta Melilla (% 17,2) eta Murtzia (% 29,7) dira.

2000-2011 aldian goi mailako hezkuntzako tituludunen ehunekoaren bilakaera positiboa izan da bai Europar Batasuneko herrialdeetan, baita autonomia erkidegoetan ere. Europar Batasuneko batez bestekoa 2000. urtean % 22,4 izatetik 2011n % 34,6 izatera pasa da. Autonomia erkidegoen kasuan, batez bestekoa aldi horretan % 29,2tik % 40,6ra igo da. Eta Euskadiren kasuan goi mailako hezkuntzako tituludunen ehunekoa 2000. urteko % 44,6tik 2011ko % 61,3ra igo da.

Sexuaren aldagaia aztertzen badugu, bai Europar Batasunean, baita autonomia erkidegoan ere, Euskadi barne, goi mailako hezkuntzako tituludunen artean emakumezkoak gehiago direla gizonezkoak baino. Europar Batasunean salbuespena Luxenburgo da (-1,7), eta autonomia erkidegoetan, Ceuta eta Melilla (-4,9) eta Aragoi (-3,8) dira, bertan goi mailako tituludunen artean gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago baitira. Batez besteko aldea 2,8 puntukoa da Euskadin, 7,7 puntukoa Europar Batasunean, eta 8,7 puntukoa Espainian.

¹ Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua (HNSN). (ISCED ingelesez; CINE gaztelaniaz)



Rs11

Unibertsitateko eta unibertsitatez kanpoko
goi mailako hezkuntzako tituludunak

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Helburua 2011n lortua edota gainditua zuten autonomia erkidegoetan eta Europar Batasuneko herrialdeetan, Euskadi barne, ahalegina hiru helburu lortzera bideratu beharko litzateke: alde batetik, sexuaren aldetiko aldeak murriztea; bestetik, goi mailako hezkuntzako erakundeek hezkuntzak, berriztatzeak eta ikerketak elkarri eragiteko behar den lana egin dezaten; eta azkenik, unibertsitateko tituludunen ehunekoa eta goi mailako Lanbide Heziketako tituludunen ehunekoa orekatzea.




Rs11.1 taula eta grafikoa:

Goi mailako hezkuntzako titulua (unibertsitatekoa, HNSN 5A eta 6; unibertsitatez kanpoko, HNSN 5B) duen 30-34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. Euskadiko² datuak.

	Orokorra	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Aldea ¹
2000	44,6	46,6	42,6	4,0
2001	44,9	46,2	43,7	2,5
2002	45,2	45,0	45,4	-0,4
2003	48,0	49,6	46,5	3,1
2004	50,4	51,1	49,8	1,3
2005	54,9	55,7	54,2	1,5
2006	55,3	61,1	49,8	11,3
2007	59,2	66,5	52,2	14,3
2008	58,3	62,7	54,1	8,6
2009	62,7	67,9	57,8	10,1
2010	59,9	64,1	55,9	8,2
2011	61,3	62,7	59,9	2,8

¹Balio positiboek goi mailako hezkuntzako tituludunen artean emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa dela adierazten dute. Kasu batzuetan aldea ez dator bat kendurarekin, batez besteko puntuazioak biribiltzeko hamarrenak doitzearen ondorioz.



Iturria: Espainiako Estatistika Institutua (INE). Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA 2005). Urteko batez bestekoak.


² Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoek laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.



Rs11.2 taula:

Goi mailako hezkuntzako titulua (unibertsitatekoa, HNSN 5A eta 6; unibertsitatez kanpoko, HNSN 5B) duen 30-34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. Autonomia erkidegoetako datuak³.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Orokorra	29,2	31,3	33,3	34,0	35,9	38,6	38,1	39,5	39,8	39,4	40,6	40,6
Andaluzia	23,1	24,5	26,8	28,0	29,4	30,1	30,4	33,0	33,0	32,8	34,2	31,2
Aragoi	35,9	38,9	36,1	37,9	38,7	42,5	43,3	43,6	41,2	41,2	44,9	46,1
Asturias	29,3	27,3	34,0	37,4	38,9	39,9	36,7	39,2	40,3	43,6	41,7	48,1
Balear Uharteak	22,8	20,8	25,7	25,4	24,1	29,4	32,7	26,2	27,2	26,7	25,6	31,3
Kanariak	21,4	26,3	29,4	26,3	28,8	31,9	28,8	31,6	31,7	29,4	32,1	31,2
Kantabria	27,4	31,5	32,3	40,7	40,2	43,7	41,5	46,8	46,9	45,6	42,9	43,3
Gaztela eta Leon	34,1	34,0	35,1	37,8	40,2	40,0	41,4	42,5	43,9	43,5	46,1	47,3
Gaztela-Mantxa	19,8	23,2	25,5	25,3	22,6	28,8	31,1	32,6	29,5	33,9	35,9	35,5
Katalunia	29,8	33,2	36,9	37,0	38,6	40,0	37,4	38,3	41,0	39,9	41,3	41,3
Valentziako Erk.	27,0	26,2	25,5	26,3	32,3	36,5	36,5	38,1	36,5	36,2	36,3	38,9
Extremadura	21,2	19,2	22,7	24,7	26,7	32,0	32,4	31,5	31,8	33,9	35,6	36,2
Galizia	27,5	30,7	32,0	36,2	37,1	39,7	41,7	43,9	45,1	43,5	43,7	43,2
Madril (Erk.)	37,8	42,3	43,9	42,8	44,6	50,2	47,8	48,6	50,6	47,3	51,3	50,3
Murtzia	23,9	28,6	30,1	29,9	33,2	30,7	30,2	32,5	30,6	31,0	27,7	29,7
Nafarroa	40,8	46,2	48,7	46,6	43,4	46,5	50,6	51,9	46,1	48,5	50,3	51,7
Euskadi	44,6	44,9	45,2	48,0	50,4	54,9	55,3	59,2	58,3	62,7	59,9	61,3
Errioxa	32,2	33,0	39,4	39,1	44,9	40,9	37,2	40,1	36,0	42,8	48,0	43,3
Ceuta eta Melilla	23,4	28,2	27,7	20,2	16,1	30,8	33,7	26,7	32,0	26,4	23,1	17,2



Derrigorrezkoaren osteko bigarren hezkuntzako tituludunen ehunekorik handienetik txikienera "2011. urtea" irizpidearen arabera

Iturria: Estatistika Institutua (INE). Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA 2005). Urteko batez bestekoak.

³ Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoak laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.




Rs11.3 taula eta grafikoa:

Goi mailako hezkuntzako titulua (unibertsitatekoa, HNSN 5A eta 6; unibertsitatez kanpoko, HNSN 5B) duen 30-34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. Autonomia erkidegoetako⁴ datuak. 2011. urtea.

	Orokorra	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
Orokorra	40,6	36,3	45,0	8,7
Andaluzia	31,2	28,1	34,5	6,4
Aragoi	46,1	47,9	44,1	-3,8
Asturias	48,1	47,0	49,1	2,1
Balear Uharteak	31,3	28,7	34,0	5,3
Kanariak	31,2	29,5	32,8	3,3
Kantabria	43,3	36,9	49,9	13,0
Gaztela eta Leon	47,3	41,6	53,4	11,8
Gaztela-Mantxa	35,5	34,8	36,3	1,5
Katalunia	41,3	34,4	48,6	14,2
Valentziako Erk.	38,9	32,9	45,3	12,4
Extremadura	36,2	26,3	46,5	20,2
Galizia	43,2	36,4	50,2	13,8
Madril (Erk.)	50,3	47,0	53,5	6,5
Murtzia	29,7	26,0	33,9	7,9
Nafarroa	51,7	46,5	57,2	10,7
Euskadi	61,3	59,9	62,7	2,8
Errioxa	43,3	39,9	46,9	7,0
Ceuta eta Melilla	17,2	19,8	14,9	-4,9

¹Balio positiboek goi mailako hezkuntzako tituludunen artean emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa dela adierazten dute. Kasu batzuetan aldea ez dator bat kendurarekin, batez besteko puntuazioak biribiltzeko hamarrenak doitzearen ondorioz.



Handienetik txikienera "Orokorra" irizpidearen arabera ordenatua.

Iturria: Estatistika Institutua (INE). Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA 2005). Urteko batez bestekoak

⁴ Datuak arretaz interpretatu behar dira, lagin txikietatik ateratakoek laginketa-errore handiak izan ditzaketelako.

**Rs11.4 taula:**

Goi mailako hezkuntzako titulua (unibertsitatekoa, HNSN 5A eta 6; unibertsitatez kanpoko, HNSN 5B) duen 30-34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko herrialdeetan.

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
EB (27 herrialde)	22,4	22,8	23,5	25,0	26,9	28,0	28,9	30,0	31,0	32,2	33,5	34,6
Belgika	35,2 (b)	35,2	35,2	37,7	39,9	39,1	41,4	41,5	42,9	42,0	44,4	42,6
Bulgaria	19,5	23,6 (b)	23,2	23,6	25,2	24,9	25,3 (i)	26,0	27,1	27,9	27,7	27,3
Txekiar Errepublikak	13,7	13,3	12,6	12,6	12,7	13,0	13,1	13,3	15,4	17,5	20,4	23,8
Danimarka	32,1	32,9 (i)	34,2	38,2 (b)	41,4	43,1	43,0	38,1 (b)	39,2	40,7	41,2	41,2
Alemania	25,7	25,5	24,2	25,1	26,8	26,1 (b)	25,8	26,5	27,7	29,4	29,8	30,7
Estonia	30,8 (b)	29,5	28,1	27,6	27,4	30,6	32,5	33,3	34,1	35,9	40,0	40,3
Irlanda	27,5	30,6	32,0	35,1	38,6	39,2	41,3	43,3	46,1	48,9	49,9	49,4
Grezia	25,4	24,9	23,4	22,8	24,9	25,3	26,7	26,2	25,6	26,5	28,4	28,9
ESPAINIA	29,2	31,3	33,3	34,0	35,9	38,6	38,1	39,5	39,8	39,4	40,6	40,6
Frantzia	27,4	29,5	31,5	34,9 (b)	35,7	37,7	39,7	41,4	41,2	43,2	43,5	43,4
Italia	11,6 (b)	12,2	13,1	13,9	15,6	17,0	17,7	18,6	19,2	19,0	19,8	20,3
Zipre	31,1	32,7	36,0	39,9	41,0	40,8	46,1	46,2	47,1	44,7	45,1	45,8
Letonia	18,6	16,8 (i)	17,3 (b)	18,3	18,5	18,5	19,2	25,6	27,0	30,1	32,3	35,7
Lituania	42,6 (i)	21,2	23,4 (b)	25,2	31,1	37,9	39,4	38,0	39,9	40,6	43,8	45,4
Luxenburgo	21,2	23,9	23,6	17,3 (b)	31,4	37,6	35,5	35,3	39,8	46,6 (b)	46,1	48,2
Hungaria	14,8	14,8	14,4	16,3 (b)	18,5	17,9	19,0	20,1	22,4	23,9	25,7	28,1
Malta	7,4 (u)	12,9 (u)	9,3 (u)	13,7 (b)	17,6	18,4	21,6	21,5	20,9	21,0	21,5	21,1
Herbehereak	26,5	27,2	28,6	31,7	33,6	34,9	35,8	36,4	40,2	40,5	41,4 (b)	41,1
Austria	: (u)	: (u)	: (u)	: (u)	21,0 (i)	20,5	21,2	21,1	22,2	23,5	23,5	23,8
Polonia	12,5 (b)	13,2	14,4	17,2	20,4	22,7	24,7	27,0	29,7	32,8	35,3	36,9
Portugal	11,3	11,7	13,0	14,9	16,5	17,7	18,4	19,8	21,6	21,1	23,5	26,1 (i)
Errumania	8,9	8,8	9,1	8,9	10,3	11,4	12,4	13,9	16,0	16,8	18,1	20,4
Eslovenia	18,5 (b)	18,1	20,7	23,6	25,1	24,6	28,1	31,0	30,9	31,6	34,8	37,9
Eslovakia	10,6	10,7	10,5	11,5	12,9	14,3	14,4	14,8	15,8	17,6	22,1	23,4
Finlandia	40,3 (b)	41,6	41,2	41,7	43,4	43,7	46,2	47,3	45,7	45,9	45,7	46,0
Suedia	31,8	26,6 (b)	28,3	31,0	33,9	37,6 (p)	39,5 (p)	41,0 (p)	42,0 (p)	43,9 (p)	45,8 (p)	47,5 (p)
Erresuma Batua	29,0	29,9	31,5	31,5	33,6	34,6	36,5	38,5	39,7	41,5	43,0	45,8
EUSKADI*	44,6	44,9	45,2	48,0	50,4	54,9	55,3	59,2	58,3	62,7	59,9	61,3

(:) Ez dago eskuragarri. (b) Seriearen haustura.

(i) Ikus oharrak: http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_SDDS/en/edat_esms.htm#comment.

(p) Behin behineko datua. (u) Fidagarritasun edo segurtasun urriko datua.


* Euskadiren kasuan INE datuak.

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.



Rs11.4 grafikoa:

Goi mailako hezkuntzako titulua (unibertsitatekoa, HNSN 5A eta 6; unibertsitatez kanpoko, HNSN 5B) duen 30-34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko herrialdeetan. 2006. eta 2011. urteak.



Handienetik txikienera "2011. urtea" irizpidearen arabera ordenatua. Euskadirako INEren datuak.

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.



Rs11.5 taula:

Goi mailako hezkuntzako titulua (unibertsitatekoa, HNSN 5A eta 6; unibertsitatez kanpoko, HNSN 5B) duen 30-34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa Europar Batasuneko herrialdeetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2011. urtea.

	Orokorra	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
EB (27 herrialde)	34,6	30,8	38,5	7,7
Belgika	42,6	37,1	48,1	11
Bulgaria	27,3	21,3	34,0	12,7
Txekiar Errepublika	23,8	21,6	26,1	4,5
Danimarka	41,2	34,7	48,0	13,3
Alemania	30,7	29,9	31,6	1,7
Estonia	40,3	30,5	50,2	19,7
Irlanda	49,4	42,8	55,8	13
Grezia	28,9	26,2	31,7	5,5
ESPAINIA	40,6	36,3	45,0	8,7
Frantzia	43,4	39,1	47,6	8,5
Italia	20,3	15,9	24,7	8,8
Zipre	45,8	39,7	52,0	12,3
Letonia	35,7	24,8	46,9	22,1
Lituania	45,4	37,6	53,3	15,7
Luxenburgo	48,2	49,1	47,4	-1,7
Hungaria	28,1	23,2	33,4	10,2
Malta	21,1	20,1	22,1	2
Herbehereak	41,1	37,3	44,8	7,5
Austria	23,8	23,1	24,5	1,4
Polonia	36,9	30,3	43,5	13,2
Portugal	26,1 (i)	21,7 (i)	30,5 (i)	8,8
Errumania	20,4	19,7	21,0	1,3
Eslovenia	37,9	29,4	47,3	17,9
Eslovakia	23,4	19,6	27,4	7,8
Finlandia	46,0	37,1	55,0	17,9
Suedia	47,5 (p)	40,6 (p)	54,6 (p)	14
Erresuma Batua	45,8	43,0	48,6	5,6
EUSKADI	61,3	59,9	62,7	2,8

(b) Segidaren haustura. (i) Ikus oharrak: http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_SDDS/en/edat_esms.htm#comment

(p) Behin behineko datua. (u) Fidagarritasun edo segurtasun urriko datua

*Euskadirako INEren datuak.


¹Balio positiboek goi mailako hezkuntzako tituludunen artean emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa dela adierazten dute. Kasu batzuetan aldea ez dator bat kendurarekin, batez besteko puntuazioak biribiltzeko hamarrenak doitzearen ondorioz.

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak..



Rs11.5 grafikoa:

Goi mailako hezkuntzako titulua (unibertsitatekoa, HNSN 5A eta 6; unibertsitatez kanpoko, HNSN 5B) duen 30-34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko herrialdeetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2010. urtea.



Handienetik txikienera "Orokorra" irizpidearen arabera ordenatua. *Euskadirako INEko datuak

Iturria: EUROSTAT, Labour Force Survey (Biztanleria Langileari buruzko Europar Inkesta). Urteko batez bestekoak.